

## Hamaika eta bat gau



### ***Mila eta bat gauen gauak***

Jatorrizko izenburua: Layâlî alf layla

Egilea: Nagib Mahfuz

Itzultzailea: Patxi Zubizarreta

Argitaratze urtea: 2006

Argitaletxea: Txalaparta

### KARLOS DEL OLMO

la ezinezko gertatzen da arabiar literaturaren gainean berba egitea bi liburu eta bi idazle itsu akordura ekartzeke. Liburuak, jakina, *Quitab alif laia ua laila* eta *Layâlî alf layla* dira. Eta idazleak, adinaren araberako hurrenkeran, Borges eta Mahfuz.

Idazle itsu eta adimen argiko biek izugarri maite izan zuten lehen liburu hura, *Quitab alif laia ua laila*, hainbestearino non pentsa baikenezake Borges ez zela benetan hil, Nagib transmutatu zela *Mila gau eta bat gehiago* mugakizunik gabe, nahierara berridatzi ahal izateko.

Borges itzultzaile ere bazen, editore askok harenak bertsioztat jotzen zituzten arren. Eta *Mila gau eta bat gehiago* bilduma literatur eta itzulpen arazo moduan aztertu zituen. Jatorrizko testu arabiarren gainean *Los traductores de Las mil y una noches* artikulu gogoangarri eta ahaztezina idatzi zuen. Itzulpengintzaren aldetik, testuak azaltzen zituen hamaikatxo arazoaren gainean jardun zuen, izenburua bera egoki emateko zailtasunetik hasi eta elkarrengandik urrun diren kulturak itzultzearen arazoetaraino heldu arte.

Itzultzaileak, oso libre jokutzen badu ere, jatorrizkoa duela muga zioen Jorge Luisek, baina idazle batek gogara sortu dezakeela. Idazle bakoitzak bere aitzindariak sortzen dituela eta, itzulpen bakoitzak, bere jatorrizkoa. Jatorrizkoa erretorikazko erosotasun bat besterik ez da, atzera begira etorkizunean finkaturiko abiapuntu. Beraz, nekez bortxatuko du itzulpen batek jatorrizkoa, hura, testu lehena, itzultzeaz batera sortzen delako.

Baina, ikuspegi hori izanda ere, itzultzailea ez da idazlea bezain libre: oso aske badihardu ere, beti izango du mugaren bat. Ez da hala gertatzen, ordea, Nagiben antzera, dena delako liburu abiapuntua hartu eta berriro bizira ekartzea erabakitzen duen idazlearekin. Beste itzulpen mota bat gertatzen da horrelako idazkuntzan: *Mila gau eta bat gehiago* hartu, irakurri eta *Mila eta bat gauen gauak* bihurtuta, lehengo mundu denboran urrun hura hogeigarren mendeko ikuspegira itzultzen du.

Borges, itsua zen, baina, itzultzaile moduan, ez zen ikusezin gertatzen —teorilari batzuek itzultzaileei izendatzen dioten tasuna baita—. Gurata. Nagib Mahfuzek ere ez du ikusezin gertatu gura, berriaz, eta jatorrizkoaren pertsonaia eta egoera batzuk hartu arren, bere erara bihurtuko du jatorrizko ipuin sorta, kezka modernoan berri ematearren.

Borgesengana itzulita, *Mila gau eta bat gehiago* liburu mendebaldeko hizkuntzetara ekarri zuten itzultzaileen (bertsiogileen?) arazoa, muinean, "aurka itzultzea" paradigmara ekarri zuen. Alegia, itzultzea beti-beti gertatzen dela "zer edo zeren aurka jardun behar bat": izenburua bera ematea, pertsona eta leku izenen transkripzioa, kultur ñabardurak behar bezala ordaintzea... Horri guzti horri egin behar izan dio aurre Patxi Zubizarretak, euskaratzeak dakarren arazo erantsi bat eragozgarri duela: hain zuzen ere, arabierazko pertsona eta leku izenak egoki transkribatu beharrarena. Eta borroka, desafioa ez zen erraza:

*Mila gau eta bat gehiago* izenburua ondo itzulita ote dagoen eztabaidagai gertatzen da egun (alegia, metafora baino ez ote den, gauen ugaritasuna adieraztekoa). Beraz, zer esan gura izan zuen, bene-benetan, Mahfuzek anonimoaren izenburua bihurtitu zuenean? Lehengo gauei beste batzuk emendatzen zizkiola ala beste zerbait?

Itzultzea, beraz, borroka indarkeriazko halako bat izaten da, ekintza traumatiko bat, ia-ia ondorio heriozkoa izaten duen zer edo zer. Eta horrek ez dauka ezelako zerikusirik adagio italiar ezagunarekin, ezta hurrik eman ere. Borroka den aldetik, ez dago inolako traiziorik, bizirik irten behar hutsa baino.

Hala, letren unibertsoa *continuum* bihurtzen da: testu bat idaztea, hura irakurri eta itzultzea, itzulpena irakurtzea, horretan oinarriturik idaztea...

Gelak ispiluekin nahasten dira, maskara benetako aurpegiaren azpian datza, inork ez ei daki zein den benetako gizakia eta zein idoloa. Eta horietako ezerk ez du axolarik, ordenarik gabezia hori hutsaren hurrengo da, ametsetako asmakizunak bezain onargarri. Ipuin batek beti izaten ditu beste ipuin batzuk barruan, eszena bakoitzak beste hamaikatxo eszena daroatza barne. Berba bakoitzak ezin konta ahala berba ditu-eta barruan.